

ASTIGARRAGA ZONBI



© Xabier Galarreta

–Begira, amatxo. Zerutik harriak erortzen dira –esan zion umeak bere amari. Eta hark ezer erantzuteko beta izan baino lehen, meloi baten tamainako harritzar batek brast erauzi zion burua.

Gure herri idilikoan orain dela berrogeita hamar bat urte jazo ziren gertaera lazgarrien hasiera baino ez zen izan zen hura (*idilikoa!*, alarau egingo du irakurleren baten kontzientzia erostezinak, *kea asmatuko dugu oraindik!*). Eta handik gutxira, zonbiak agertu ziren herri osoan.

Umeak, kontaketa gozaturik, euren mukiak jaten zituzten ipuina entzun bitartean, horrenbestekoa baitzen zonbien gaineko istorioak eragiten zien hunkipena, “Astigarraga Zonbi” kontaketa hamaika bat aldiz entzunda bazeukaten ere.

–Ea ba, konta iezaguzue nola lehertzen zenituzten zonbien buruak –garrasi egiten zuten liluraz beterik (zenbait gauzak ez dute erremediorik; esaterako, gizakiek).

Zonbiak lehertzeko, burmuina zanpatu behar zitzairen. Eta horretarako edozerk balio zuen: pala mekaniko batek, estolda baten tapakiak, aitonaren zizpak... Baina zonbiak horren ugariak ziren, ezen, azkenean sagardotegietako dolareak

erabiltzea erabaki baitzuten. Hara botatzen zituzten, eta gero tramankulua martxan jartzen zuten, zonbiak sagarren gisa zukutu arte. Baten batek proposatu zuen zonbi-ura aprobetxatzea sagardo ospetsuaren bertsio berria egiteko, baina ukabilka kasik seko utzi zuten hantxe bertan; eta pozik, zonbiekin batera bota ez zutelako...

Tabernan sartzen zinen eta zonbiak baino ez zenituen ikusten; kalera joan eta han ere berdin-berdin. Eta udaletxean, industrialdean, banketxean edo liburutegian (beno, han ohituago zeuden zonbiak ikusten) gauzak ez zihoazen askoz hobeto. Norbaiti otu zitzaion ez ote zen hobe izango denok zonbi bihurtzea, eta horrela ja ez gintuen gehiago kezkatuko zonbi bihurtzeak. “Azken finean, inportanteena ez da besteek zer pentsatzen duten, baina zuk zeuk zer pentsatzen duzun”, esan ohi zuen gogoeta-oneko-jendeak, *txaketeoaren* mугan zegoen halako jarrera pragmatiko –jasanezin– bat erakutsiz.

Kontua okerretik okerrera zihoan eta herrian giroa tirabiratsu zegoen. Batzuk zombien alde eta beste batzuk zombien aurka, nahiz-eta, orokorrean, inork aukerarik galdu ez, zonbi bat edo beste paretik kentzeko. Ez gaiztakeriagatik ez arrazoi xenofobo edo ideologikoengatik; estetika hutsagatik baizik. Dena dela, jendeak aspalditxotik utzia zion betiko kontuei buruz hitz egiteari, eta hargatik zenbaitzuk hasiak ziren sentitzen halako begikotasun bat zonbiekiko. Tamalez, zonbi

guztiak gizajaleak ziren eta jendea irenstea beste ezer ez zuten gogoan. Eta horrek ez zuen, noski, askorik laguntzen giroa baretzen.

Zonbiek egiten zituzten desmasiak auzokoen eguneroko esamesa bide ziren eta guztien ahotan zebiltzan. Baten bat leihotik txalet baten barrura sartu eta familia oso bat jan zuela; beste batek ez dakit noren txakurra irentsi zuela (ziur baten bat poztu zela, egun-puta guztia zaunka-eta-zaunka aritzen baitzen).

Behin, zonbi asko iritsi ziren batera, autobus gorrian denak, sagardotegiren batera etorriak bezala... Horrek alarma piztu zuen herritarren artean, zeren “ea hasten diren kanpotik ere ailegatzten. Hemen, herrian ditugun zonbiekin nahikoa izango ez bagenu bezala, aizu...”. Baina kontua arin-bai-arin konpondu zen. Denak, artalde baten gisa, sagardotegirik hurbilenera eramanak izan ziren eta, bertako dolarean zapal-zapal eginda, zonbiak izateari uztea beste erremediorik ez zuten izan (amen).

Zoritxarrez, meteorito deabru haiek zerutik erortzen jarraitzen zuten, eta garbitzen zuten zonbi bakoitzeko segituan agertzen ziren beste bost. Zergak bezain erraz ugaltzen ziren. Eta gainera, ordurako leku guztietatik iristen hasiak ziren, sagardotegien garaia jada amaituta bazegoen ere (bueno, zombientzat ez, beti egoten baitzen

sagardotegi bat edo beste zabalik, zonbi-zuku on bat egiteko prest).

Auzoko batek (lixtopasatuak) konponbidea aurkitu uste izan zuen. Ba omen zeukan film batean ikusita martetarrak soinu batez hiltzen zirela, buruak eztanda eginda. Orduan, boladako abesti *modelno* askotxorekin egin zuten aproba, baina alferrik.

Azkenean, auzokoak aspertu egin ziren. Ez zuten zonbiak garbitzen jarraitu nahi izan eta pixkanaka amore ematen hasi ziren. “Zonbia izatea horren txarra ere ez da izango, ezta?”, esan ohi zuten. “Gainera, horrenbeste badira, zerbaitengatik izango da”, esan ohi zuten ideia horretara apur bat jarriak jada, zentzu praktiko ikaragarria erakutsiz.

Dena dela, giroa gorrotagarri eta higuigarri bilakatua zegoen, eta etxeko atea irekitzea nahikoa zen zure auzokoa hortxe ezkaratzean topatzeko etxeko txapinetan eta atzerakoa ematen zuen halako zonbi-aurpegi batekin! Benetan. Inortaz fidatzerik ez zegoen. Ez andreak beren senarrez (gutxi harritu horretaz, zeren noiz egon da fidatzeko moduko senarrik?) ez seme-alabez (horiez are gutxiago fida daiteke bat) ez gizonak beren andreez, horietako asko ordurako zonbi-zonbi eginak eta gainerako zonbiekin elkartuak baitzebiltzan. Bidenabar esanda, zonbiak poligamoak ziren, eta horrek dezente animatu zituen zonbi bilakatzearen alde zeuden herritarrak –gizonezkoak batik bat–. Noski,

jakin zutenean zonbiei ez zitzaiera altxatzen ezta kilo erdi *viagra* hartuta ere, eta neska zonbiek hankartekoa zurrupatu beharrean jan egiten zizutela, ai *amigo*, orduan ja ez zitzairen horren ideia ona iruditu (puritanoak, ordea, poztu egin ziren, pozak labur iraun bazien ere: handik gutxira haietako asko ere zonbi bihurtuak baitzeuden – gehienak bezala–).

Baina herritarren aldarte onak bere horretan zirauen. Egun batean, esaterako, ez dakigu nori baina sekulakoa bururatu zitzaion norbaiti: kartel batzuk han-hemen jartzea (kalitate oneko lekeda erabilia, nola ez) eta lehen planoan zonbi pila bat, eta karteletan hauteskundeetako esloganak: eman botoa zombien alderdiari! eta abar, eta abar. Egun hartan barre-algara handiak entzun ziren herri osoan, batzuek gaizki hartu bazuten ere. Dena den, ez hotz ez bero geratu zirenak askotxo izan ziren, gehienak ziur aski (errealitatean bezala). Egia esan, txantxa izan ez balitz, baietz zonbiek zinegotziren bat atera udal hauteskundeetan!

Azkenean, esan bezala, ezaxola nagusituz joan zen eta Mendebaldeko indibidualismo ospetsua atera zen garaile beste behin: “Bizi beza bakoitzak bere morala (baduenak) eta bere zoroa (denok)”. Bestelako hitzez esanda: “Zonbia izan nahi baduk, izan hadi; eta zonbia ez baduk izan nahi, ez hadi izan. Eta amorrua ematen badik, ba... izarrai”.

Eta besterik gabe, afera amaitu zen.
Azkenean, ez ardo eta ez ur. Betikoa alegia.
Txakurraren putza, hi...